



(m) 2002 xagubelarri@hotmail.com

Larrugintzako eskuliburua

Horrela definitzen dute *Ostiela!* aldizkari-koek beren 26. zenbakia osatzen duen *Pornolore* ale monografikoa, «aldizkari pornoa, baina ez gogortxo». «Euskal literatura ez da arriskatu haragiarekin», esana zuen Joxe Azurmendik, eta *Ostiela!* aldizkari-koak hutsune hori betetzen ausartu dira oraingo honetan. Sarrera Jon Arano koordinatzaileak sinatutako *Jopu zorionsuak* artikuluekin dator. Lehenengo euskal aldizkari erotikoa hainbat atalek osatzen dute: ezizenpeko 20 ipuin erotikok, zenbait artikuluk — horien artean Jexusmari Mendizabalen *Ondo lo egin*—, bi poemak —*Nire liliari* eta *taboo*—, Juan Martin Elexpuruk *Pornolore* honi eginiko apologia artikulua eta Iñaki Olaizola Sex Pittilingorriko arduradunari eginiko elkarrizketa batek. Testu eta idazlan guzti horien artean argazki ugari, hainbat kontakizun eta 80 ipuin erotiko baino gehiago ere biltzen dira.

Azken sei urte eta erdiotan *Ostiela!*-n agertu dira honatx azaltzen diren ipuinetako batzuk, eta horiek guztiak birmoldaturik osatu dute ale bereizi hau.

Ale bereizi gisa argitaratu dute, kiosko eta liburu dendetan aldizkariaren iraupena areagotzeko saioan. Bestalde, Jon Arano esan duenez, beste helburu bat literatura erotikari buruz gogoeta piztea da: «Oharturik geunden zein literatura txarra eta faltsua dabilen halako aldizkarietan, eta halakoak erabiliz, hori salatu, parodiatu eta satirizatu nahi izan dugu. Aldizkari pornoen parodia bat egitea eta istorio erotikoa merkeen lepotik barre eragitea izan dugu helburutzat».

Usteen gainetik, Jonek dioenez, «sexu testigantzak eta narrazioak ez dituzte irakurleek idazten, baizik eta erredaktoreek idazten dituzte, beraien esperientzien arabera; gu, istorio horiek literatur maila hobea batean egiten ahalegindu gara». Aldizkari berezi honetan bertan «literatura erotikoa intelektuala» bezala ere definitu du batek baino gehiagok *Pornolore*. Euskaldun ororentzat zuzenduriko aldizkari gisa argitaratu dute *Larrugintzako* aldizkari hau, eta «inoiz euskaraz irakurtzen ez duen jende ugari euskaraz irakurtzen hastea» lortu du-

tela dio Jon Aranok. Aldizkariak izandako harreraren inguruan, lantoki zein txoko ugaritan zitzu bizian desagertu egin omen dira aleak, eta seguruenik «esku bakarrarekin irakurri» dituztela dio.

Aleak izandako emaitzen inguruan

galdetzean, honela deritzo aldizkari-ko koordinatzaileak: «Oso eroso ere ez gara sentitzen; baina hau egiteagatik barkamen eske ere ez gara hasiko; eta hau egiteagatik ez gara ez misogino, ez matxista, ez homofobo, ez lesbofobo edo transfobo...», garbi utziaz, salaketa, parodia gisa landu dutela ale hau. Erosotasun eza irakurle sentiberegiek gaizki uler dezaketen horretan datza bere us-tez, kritika batzuk jaso ditzaketelako; baina ate hau norbaitek zabal-tzearen beharra ikusiaz abiatu zirela *Ostiela!*-ko kideak dio: «Kritikak jaso arren, norbaitek abiatu behar du beti».

Jonek dioenez, «pornoaren eta erotismoaren arteko aldean ez dugu sinesten; batak zein besteak balio du probokatzen bazaitu; mundu erotikoa-pornoa oso zabala da, eta hor lehenbizi fantasia dago, sexu erlazioei piper gehiago emateko, sena hobeki adierazteko».

Hori guztia adierazi nahi izan dute *Pornolore*-n. Oharkabean igaroko ez den argitalpena da hau. Baterako zein besterako zer esana emango du, eta aldeko zein kontrakoak piztuko ditu. Hori da, haim zuzen ere, argitalpenaren sustatzaileen beste helburu nagusietako bat.

■ garikoitz mujika



informazio eske edo matrikula egiteko.

'Urbeltzen dantza ganbara/Ondarra'. Nahi duten guztiek dantzan egiteko aukera izango dute ostegunean, gaueko 21:00etan, Kafe Antzokian.

'Gaztedi dantzari taldea'/Bilbo. Uztailaren 16an, asteartean, dantza saio bat eskainiko dute, Karmelo plazan, 19:00etan.

'Salvador Cardenal'/Bilbo. Nikaraguako kantautoreak *Tuyo lo que soy* disko berria aurkeztuko du uztailaren 17an, gaueko 22:00etan, Bilboko Kafe Antzokian. Gonbidatu gisa, Jabier Muguruza arituko da.

Ikastaroak

'Krisi egoeran interbentzioa, diagno-

sia eta erabilpen praktikoak' tailerra izango da uztailaren 26 eta 27an, Solana Orlandok emana eta Haurralde Fundazioak antolatua. haurralde@euskalnet.net

'Hegoa komunikatzen'. Kazetariari, ONGD-tako komunikazio arloko langilei eta komunikazio arloko ikasleei zuzenduriko ikastaroa. UNESCO Etxeak antolatua. Izena emateko: www.unescoeh.org/unescoeh/periodismo edo deitu telefono zenbaki hauetara: 946 03 39 30 / 657 77 16 70.

'Barnetegi ibiltaria'. Aurten ere AEK-k antolatutako udako barnetegi izango da, abuztuaren 1etik 11ra. Aurten, barnetegi ibiltaria izango da. Hamaika egunez Euskal Herria iga-

roko dute bizikletaz, Ugaon hasi eta Zumaian amaituko den ibilaldian. Euskaraz mintzatzea da ibilaldiaren funtsa, eta herriz herri, bertako euskalki eta ohiturak ezagutu eta herritarrekin hitz egiteko aukera izango dute. Prezioa 220 eurokoa da, eta barnean sartzen dira lo egiteko lekua, gosariak eta afariak, ibilaldia- ren inguruko materiala, eta irakasle gidariak. Izena emateko deitu 94 415 95 12 telefonora.

'Gazteentzako barnetegi'/Bakaiku. Uztailaren 11tik 24ra eta abuztuaren 26tik irailaren 8ra izango dira euskarazko barnetegiak. Prezioa 312 eurokoa da. Izena emateko bulegoa@zenbatgara.org edo 94 423 75 91 telefonora deitu

'Argiaren hizkuntza eskenan'/Bilbo. Kultura eta artearen III. topaketak direla eta, Jorge Planas Vandrellek zuzenduriko ikastaroa izango da uztailaren 15etik 19ra, Bilborock aretoan.

Deialdiak

Koadrila eguna / Zarautz. Urriaren azken asteburuan Zarautzen egin ohi den Koadrila Eguna aurten antolatzen hasteko deialdia egin du Zarauzko Gazteria Ordezkaritzak. Helbide bat jarri dute proposamenak bidaltzeko: koadrilaeguna@yahoo.es.

'Operación hazlo tu mismo'. «Usteko musika alternatiboa» egoera kas- karrean dagoela eta, Errenteriako Lobato etxeak deialdi berezia egin du. «Nazkatuta gaude jaialdi guztie-

tan talde berak ikusteaz, talde horiek horrenbeste kobratzen ikusteaz, eta CD baten truke horrenbeste ordaintzeaz», diote handik igorritako agiri batean. Hori dela eta, Lobato etxe-ko kideek ekimen berezia jarri dute abian. CD bat aterako dute bertan azaldu nahi duten talde guztiekin; ez da lehiaketa eta ez dago saririk. Nahi duen orok bi edo hiru kantu bidal ditzake taldearen informazioarekin, eta ondoren, talde bakoitzaren kantu bat aukeratu diskoi osatuko da. Errenteriako jaietan, kontzertu bat egingo da diskoan parte hartu duten taldeekin. Kantuak helbide honetara igorri behar dira: 123 posta kutxa, 20.100 Errenteria.